


# Hirian

Hiri bateko auzoak oso desberdinak izaten dira: askotan, alde zaharraren inguruan, auzo berriagoak eta lantegiak eraiki dira (orain dela urte gutxi, horrelaxe sortu ziren hiri berri osoak). Biztanleak, erdialdeko etxeetan bizi dira (hiriko erdialdea da). Bizimodua ez da beti oso atsegina, trafiko arazoak daude, zarata... Urbanizazioak eta lorategiak dituzten auzoak hiriaren kanpoaldean kokatzen dira. Huetan, lasaitasuna handiagoa da, zuhaitziak eta belardiak dituzte...



Hirian ospitaleak, administrazio-erakundeak, zinemak, kiroldegiak eta herri batean ez dauden bezalako denda bikainak aurkitzen dira. Denda txikiak hiriko erdialdean egoten dira batez ere. Hipermerkatu batzuetara ere joan daiteke, autoak bertako parking handietan aparkatuz. Hiritarrek erdialdeko bulegoetan edota "negozio-auzoetan" lan egiten dute. Baina hiritar askok hiriaren kanpoaldean edota gertuko herrietan dauden bulego eta lantegietan ere lan egiten dute (industrialdeak).

